

UDALA. Preminea, orain, garbitasuna zaindu eta jatekoen kalidadea jagotea dala nabarmendu dau Iñaki Azkunak

Mercabilbaon aparkalekua egin dabe beharginen autoak izteko

Bigarren solairuan hozkailu-kamioiak egoki izteko azpiegitura gertau dabe

Iñigo Bilbao

Mercabilbao azokan behar egin dabenentzat aparkaleku barria inagurau eben atzo goizean. Solairu biko eraikin barriak 3.600 metro koadro ditu, eta 180 autorentzako lekua egokitu dabe lurpean geratzen dan beheko aldean. Hor, azokako beharginek euren autoak itxi ahal izango ditue hemendik aurrera. Goian, barriz, 40 kamioi handi sartzeko gertau dabe solairuaren erdia, eta enpresa baten biltegi izateko ganontzeko 1.800 metroak.

Kamioientzako aparkaleku horretan, ganera, azpiegitura elektrikoa ipini dabe hozkailu-

kamioien ganberak isiotuta itxi ahal izateko, tenperaturak gora-beherarik izan barik.

Aparkaleku barrian salmentea edo zamaketa-beharrentzako ordutegitik kanpo izten diran ibilgailuak sartuko ditue, eta handaze, zamaketa-lekuetan toki gehiago izango da orain, erosleek euren autoak itxi daiezan. Merkaturako arduradunen ustetan, horrek erreztu egingo ditu merkataritza beharrak.

Pabilioi barria lehenago ekoizleen eraikina egoan ibarrean eregi dabe Lantec eta Balzola enpresek: lehenengoak proiektua eta obrearen zuzendaritza eroan dauz, eta bigarrenak, barriz, obrea bera egin



JON HERNANZ / ARGAZKI PRESS

Eraikin barriak 3.600 metro koadro daukaz, eta bertan 180 auto izteko aparkalekua egin dabe.

dau. Beharrak lehiaketa publikoaren bidez agindu zituan Bilboko Udalak, orain bederatzi hile, eta aurrekontua, danetara, sasoi hartako 320 milioi pezetako izan zan (1.923.238 euro).

Alkartearen %60 Udalarena da

Izan be, Bilboko Udalaren esku dago Mercabilbao alkartearen %60a. Ganerako gehiena Estatuaren ardurapean dagoen Mercasa alkartearena da, eta

zati txiki-txiki bat Basauriko eta Barakaldoko Udalek kudeatzen dabe, besteak beste Merkataritza Ganberagaz batera.

Horrexegaitik, Iñaki Azkuna alkatea egon zan ohorezko arreskuan, eta berak moztu eban aparkaleku barrirako bidean ipinitako zintea. Azkunak azaldu ebanez, apostua orain lekua- ren garbitasuna zaintzea, eta jatekoen kalidadea jagotea da. Egunen baten, beharbada, pa-

biloiak barritu beharko dirala nabarmendu eban alkateak.

Orain barritu dituen 13 hektarea horreek libre egozan azkenak dirala azaldu eban, eta beraz, inoiz azokea handitzeko premia egotekotan, pabilioiak goruntz egin beharko dabela esan eban. Mercabilbao lekuz aldatzeko beharra aitatu izan dan arren, oraingoz ez dagoela horren inguruko planik aitortu eban Azkuna alkateak.

PROTESTEA. Sindikatuek errekurtsioa ipini deusie gitxieneko zerbitzuen inguruan Gobernu Lan Sailak hartu dauen erabagiari

I. B.

Bart hasi da, herrialdeko 11 udalerrian, zaborra batzen daben beharginen grebea. ELA, CGT, UGT eta CCOO sindikatuek antolatu dabe Cespa SA enpresako 300 beharginen protesta, joan dan astean enpresako arduradunekin egin eben batzarrean lan itunaren inguruko tirabirak bardin-bardin jarraitzen ebela egiaztatu ostean.

Grebearen ondorioz, arazoak izango dira datozen egunetan

Bart hasi da zaborra batzen daben beharginen mugabako grebea hamaika udalerrietan

Getxon, Berangon, Plentzian, Erandion, Etxebarrin, Galdakao, Zornotzan, Gernikan, Sestao, Portugaleten eta Mungian.

Juan Carlos Polo ELAko ordezkariak Bizkaia-ri azaldu deustonez, egunean egindako batzarrean enpresek hiru urteko ituna eta %3ko igoerea eskaini eutsien. Sindikatuen ordezkariak, barriz, ituna urtero sina-

tzea, igoerea %6,5ekoa izatea, eta azpikontratauta dagozan beharginen egoerea barrikusi eta euri be behin betiko kontratuak egitea eskatu eutsien.

Beharginen ustez, enpresek egin deusten azkenengo eskaintzea «trikimailu bat besterik ez da», eta nabarmendu dabenenez, lehenago egin eutsiena baino askoz be eskasagoa da.

Gitxieneko zerbitzuen inguruan be ez dira bat etorri alde biak. Gasteizen, Lan Saileko arduradunekin egindako batzarretan, zaborra egunero batzeko eskatzen eben enpresak eta udalerrietako ordezkariak. Beharginen ustez, hori iruzur egitea zan, eta osasun zentroetako eta erretirauen egoitzetako zaborrak baino ez zituela jasoko

erantzun eutsien. Lan Sailak, azkenean, beharraren erdia egitera behartu ditu.

Sindikatuek auzitara jo eta epailearen aurrean erabagia errekurridu daben arren, ELAko ordezkariak argi itxi dau beharginak agindutakoa beteten ahaileginduko dirala.

ELAk jakin eragin dauenez, bestalde, Cespako beharginek manifestazinoa egingo dabe gaur goizean Getxon. Protestea Xake Plazan hasiko da, goizeko 11:30ak aldera.

LAGURAEAN

INGURUMENA

5.500 bizkaitarrek egin dabe Garbibideren ikastaroa eta 421ek eskuratu dabe ingurumenaren pasaportea

Danetara, 5.493 bizkaitarrek egin dabe azkenengo urtean Foru Aldundiaren Garbibide alkatuek antolatutako ikastaroa. Ekimen horren bidez, ingurumen pasaportea banatu ditu Maria Esther Solabarrieta diputauak zuzentzen dauen sailak, eta atzo prentsaurreko baten azaldu ebanez, 421 herritarrek lortu dabe oraingoan garbikide agiria. Diputauak azaldu ebanez, ikastaro eta sari horren bidez, herritar bako- txak ingurumenagaz hartu behar dauen konpromisoa bultzatu gura dabe foru agintariak. Pasaportea 6 eta 16 urte bi- tarteko gazteentzat zuzenduta dago batez be, nahiz eta Solabarrietak nabarmendu ebanez, gero eta gehiago diran ikastaroan parte hartzen daben adin horretatik gorakoak.

BILBO

Ura moztuko dabe bihar uriko hainbat kaletan

Sare nagusian egin behar dituen obrak dirala eta, ur barik itxiko ditue bihar uriburuko hainbat kale: Masustegi estarta-Basurtu, Basurtutik Kastrexanarako bidea, Benta estarta, Iturribarria, Autonomia, Basurtuko Geltokiko bidea, Aita Donosti plazea, Luis Briñas, Le- kuona etorbidea, Nobia Salcedo, Malako estarta, Urkiola, Pablo Alzola, Lezeaga, Auntzetxeta, Tella- gorri eta Jardin Txikerra kalea.

KRIKIEA

Zugaztietako golf zelaia dala eta, PPK Aldundiaren «itsukeria» salatu dau abeltzainak baztartzegaitik

Arturo Aldekoa Batzar Nagusietako PPKo kideak uste dau Foru Aldundiak «itsukeria» eta «arinkeriaz» jardun dauela Zugaztietako lurretan egin gura dauen golf zelaia dala eta, ez ditualako kontutan hartu bertako abeltzainen eskubideak. Salaketea Juan Cruz Nieves Urigintza diputauak Batzar Nagusietan popularrei euri emondako erantzun baten ostean etorri da. Izan be, PPK itaun zuzena egin eutsan diputauari, golf zelaia egiteko desjabetuko dituen 750.000 metro koadro lurren inguruan Zugaztietako abeltzainek ipinitako errekurtsoen ganean. Nievesek zalantzan ipini dau abeltzain horrek ezelako eskubiderik dutenik, eta esan dauenez, ganera, horreek guztiorrek gitxiago dira golf jokalaria baino.